

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko apirilaren 13tik 19rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/04/15

- Ebazpena, 2019ko martxoaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Orokorrarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den izozte eta hozte prozesuen bitartez itsas produktuak ekoizten dituzten enpresen Hitzarmen kolektiboa. **2019-5717 xedapena - 32 or.**

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2019/04/17

- Bizkaiko Adinekoentzako Zentroak sektoreko Hitzarmen Kolektiboa (hitzarmen kodea zenbakia 48005745012006) (oker zuzenketa). **1 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/04/13

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Mugaketa eta ezarpen judiziala.** - 256/2019 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, 2019ko programazioari dagozkion hirurogeita hamabost unitate sortzeari buruzkoa. **2019-5564 xedapena - 21 or.**
- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Dirulaguntzak.** - 257/2019 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, zeinaren bitartez ezartzen diren portuetako zamaketa sektorea egokitze laguntza bereziak emateko arauak. **2019-5567 xedapena - 15 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - Produktu farmazeutikoak.** - 258/2019 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, laborategi farmazeutikoak, erabilera farmazeutikoko printzipio aktiboen fabrikatzaileak, eta botiken eta ikerketa bidean dauden botiken kanpo merkataritza arautzen dituen ekainaren 25eko 824/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. **2019-5568 xedapena - 8 or.**

2019/04/17

- **BARNE MINISTERIOA. - Zirkulazioa. Neurri bereziak.** -Ebazpena, 2019ko apirilaren 11koa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zuzentzen diren 2019ko martxoaren 25eko ebazpenaren akatsak; azken ebazpen horren bidez, 2019. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen 2019ko urtarrilaren 14ko ebazpenaren VII. eranskina zabaltzen da. **2019-5814 xedapena - 1 or.**

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.**

- **Arrantzaren sektorea.** - 239/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, zeinaren bitartez ezartzen diren arrantza-turismoaren jarduera gauzatzeko baldintzak. **2019-5816 – xedapena - 9 or.**
- **Atzerritarrak.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 27koa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, zeinaren bidez argitaratzen den betetzeko zailak diren lanpostuen katalogoa, 2019ko bigarren hiruhilekorako. **5852 xedapena - 2 or.**
- **Gizarte-prestazio publikoak. Erregistroa.**- Ebazpena, 2019ko apirilaren 5koa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarena, zeinaren bitartez argitaratzen den Gizarte-prestazio Publikoen Erregistroan sartutako erakunde, entitate eta enpresen katalogoa. **2019-5854 xedapena - 4 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/04/15

- **XEDAPEN OROKORRAK. - Gipuzkoako batzar nagusiak.** - HUTS-ZUZENKETA, honako honena: Gipuzkoako Batzar Nagusien Osoko Bilkurak 2006ko uztailaren 2an onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusien Araudiaren aldaketa. **1895 xedapena - 2 or.**

2019/04/16

- **LEHENDAKARITZA.** - 5/2019 LEGEA, apirilaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzekoa. **1919 xedapena - 4 or.**
- **INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.** - 63/2019 DEKRETUA, apirilaren 9koa, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen. **1920 xedapena - 7 or**
- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 1/2019 FORU DEKRETU-ARAU, martxoaren 12koa, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen zenbait birsailkapenen neutraltasun fiskala ezartzen duena. **1922 xedapena - 2 or.**

2019/04/17

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 4/2019 FORU ARAUA, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. **1948 xedapena - 41 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/04/15

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 220/2019 Erabakia, apirilaren 2koa. Onespena ematea JEZari dagozkion probintziako eta estatuko 2018ko kuotak banatzeari Arabako Lurralde Historikoko udalen artean. 1069 xedapena - 3 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/04/17

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** - Bizkaiko Batzar Nagusien erabakia, zeinaren bidez berresten baita 1/2019 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, otsailaren 19koa. Haren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen da, eta UEFA Euro 2020ren azken fasearen araubide fiskala osatu. 1 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO